

"Euzko-Deya,"ko Lagunai

Lengunian ikusi neban geure izpafingi maite onetan, euzkeldun askok mustufa okeftuko ebalu, euzkeragaitz asko eta efaza gitxi ikustiagaitik. Eta au jazoten zala, euzkera efaz-zaliak alpefenak, edo bestiak baño alpefaguak diralako. Izan leike. Batzuk izaten dira efaz-zaliak, lan-zaliak edo biaf-zaliak eztiralako, eta bai-dira banaka bat, euren bafuan gure izketia maite eztabenak.

Baña, nik uste dot beintzat, efaz-zale asko be bai-dirala, nai dabelako gustiai euzkeraren bidietan efaz ibili eragin, danak jua al daitezgan geugaz, erdereza bazteftuta euzkerea bakafik eginda.

Ofetarako, nire ustez, geure euzkerea egin biaf dogu lenengo efaz ta efaz, gero garbi ta garbi, ta azkenez, edo gauza batzuetan, gitxienezko diranetan (izketa gustietan egiten dan lez) euzkera apaindua, *azafua*, itz bafi askogaz, edo antziña-antziñakuak gauf argitara ataraten diranakaz. Alan saftu leitekez zuek maite dituzuen bira ta *diabrukeri* gustiak.

¿Norentzako idatzi biaf ete-dogu? ¿Befogei edo larogei euzkeldun jakitunentzako? Nik uste dot ezetz. Ofek eztabe Euzko-Deya'rik biaf; idatzi biaf dogu euzkeldun geyentzako: afantzale, basefiar ta langiientzako. Ofek eztauke zer-imiñi begien aufian, euzkeraz idatzirik, eta ikaratu eta izututen dira laster gauza gatxagaz. Bein baño geyagotan entzun dot euren espanetatik: «euzkera ori *txiñua* da». «Ezta txiñua gero, euzkera garbia baño», baño eurak eztabe uleften; astia ta lana galduten dira alpefik, eta geure euzkeldunak erderara doaz. ¡Ori da tamala ta lotsa andiena!

Adizkide maitiok: euzkerea aspaldiik gaixorik dago, eta gaixo bat lez erabili biaf dogu. Gaixo bati ezin emon yako lukainkarik edo efbi-pastelik, esnia ta posusaldea baño, osterantzian laster ilgo litzake. Lenengo sendotu ta indafa aftu biaf dau, ta gero afiak be jango ditu. Alan, ba, euzkera maite gaixo oneri emon biaf dautsoguz saldea ta esnia, besterik ez, euzkeldun geyentzako, beintzat. Gero, euzkeldunen artean sendotuta gero, lukainkeak eta efbi-pastela pozik iruntsiko ditu. Eta ordua datofenian (jlaster ba'litz!) euzkeldunak *arotz-pastela* jango-ba'lebe... neugaitik elitzake atzerarik egingo.

Alan deritxat, Gustiai euzkeraz, gustientzako euzkeragaz; mordo lokada bat edo hat ba'dakaf, mustufak okeftu, baño gero... begiak itxi ta iruntsi luma ta gusti.

Gauza gustien gañian, txarto naiz edefto, euzkeraz. Eztago ofelako autonomiarik, edo olango buru-austeko gauzarik. Safi esaten dot nik, euzkotaf gustiak Castro'tik Tudela'raño euren aftian euzkeraz bakafik egingo ba'lebe, laster juango litzakezala Ebro'tik egorantz espanafak garala esaten ona etofi diranak. Eta juango litzakez geuk ezer be egin-barik, paltrikeretan eskuak saftuta euri arpegira begiratu baño.

Euzkeltzale Zar Bat.



Besoak uzkaldurik egon

Euzkel-idazleri gerta diteké orain neri gertatzen zaitana.

Asi naiz Euzko-Deya'rako zerbait egin naiz eta gaik ez...

Besoak gurutz edo uzkalirik egon beafko, leyotik begira euri ari ote-den edo. Baña, Jainkoa'ri eskefak, gogo argitu dit eta beazue zer dutan ene gogoan.

Oraintxe bertan gogora etofi zait *Razón y Fé* delako omen-andiko ilorokoak ziona Ilbeltza'ko zenbakian *Principio de las Nacionalidades* gai uni buruz.

Ez-omen-da aski abefi bat beftze efienganik, berezteko ez abenda edo odola, ez izkuntza edo elea, ez oroituria, ez lekua eta ez ere lehenago danik izan duen beregaina edo azkatasuna.

Beafezkoa omen-da efitaf geyenen naimen zuzena.

Ongi, ala dio Josu-lagundiko Itzaga abak, eta ni oso basa edo lafeko naizelakotz, gai untarik alde egitean *so uni* batekin otoitzen ditut gure idazle gaitzak diren *Kikitza Axe* edo beftze mintza daitezen.

Nik, koropilo ofen azkatzeko bai-dut aiztoño bat eta ura da erdararen lokafiak ebakitzeko.

Abeftzale guziok euzkelduntzen garelarik egñien ditugu beftze ainbeftze abeftzale gure efitafen artean eta orduan geyenak izango gera abefkideak eta naiko bai-dugu Abefia maitatu eta andietsi; orduan izanen da Itzaga abak dioena, gure Efia berezteko.

Gogofa duzu ori; gauza oketan ere beafezkoa omen-da geyenen iritzi berbera edo *sufragio universal* delako gezuf andia.

Eta nik uste nuela, ene iritzi baño indafstuagodela Itzaga abarena eta begira nola lafeko baten jakinduri basa buruz-buru, Josu-lagundiko jakintsu baten befin.

Besoak uzkaldurik egoitea ez da bide zuzena Abefiar-en azkatasuna jotzeko: ibili beaf da, ibiltzen denak egiten du bide. Agur, eta Jainkoa baitan agur, irakuñe maite.

LAREKO.

EGIYAREN BILDUR

(Y P U Y A)

Bere burua edertzat zeukan
artzain gaste bati,
artzai zarak, itxusia zala
esan zion gogofki,
eta gaxua ori entzunda
atsekabez zan bizi.

-- Egiya ote—zion tamaltsu—,
artzai zarak diona?
Ez-ote-naiz ni mendi ontako
artzain edef laztana?
¡Ezin nezake nik zintzatu,
ez, gaizto oren esana!

Bere burua losko batian
nai izan zuan ikusi;
bañan ertzera eldu zanian,
—¿Eta ba'nintz itxusi?
oldoztu zuan; bildurez junik
begitu-gabe igesi.

TENE.